


## FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektuaren nondik norakoak hausnartuz, zein bazkide- edo hornitzaile-sareekin elkartuko ginatekeen erabaki dugu. Hau oso garrantzitsua da proiektuak funtziona dezan, horregatik erabaki dugu batik bat gaiarekiko aktibistekin eskua hartzea. Aldaketa klimatikoa edo birziklatzearekin neurriak hartzen dituzten enpresak izango dira kontuan hartuko ditugunak.

Adibidez, zakarrak sortzen ez duten produktuak saltzen dituzten enpresak etab. Kontuan hartu behar dugu gure proiektua aplikazio bat dela, baina erabilgarriagoa da aktibistekin kolaboratzea, aplikazioekin zerikusia duten enpresekin egitea baino. Hala ere, arriskuak murrizteko ezinbestekoa izango litzateke. Batik bat, guk zerotik hasiko dugun proiektuan (aplikazioan) ez dugu esperientziarik. Beraz, ezjakintasunaren ondorioz, hainbat akats izan ditzazkegu. Horretan adituak diren enpresekin kolaboratuz gero, akats horiek saihestuko genituzke.

Gure inguruan benetan dagoen arazoa, jendearen kontzientzia falta da. Asko itsututa daude eta ez dira konturatzen benetan gure inguruan gertatzen ari den arazoaren larritasunaz. Hori aldatu egin nahi dugu gure aplikazioarekin, horretarako albisteak jartzea pentsatu dugu. Albiste horietan, klimaren bidez munduan gertatzen hari diren arazoak jarriko ditugu, jendea kontzientziatzeko benetan gertatzen ari denaz. Horrela, pentsatzen dugu modu bat izan daitekeela benetan jendea ohartarazteko eta birziklatzen saiatzeko.

Albisteez gain, manifestazioak edo elkarretaratzeak eta hitzaldiak ere egin ditzakegula pentsatu dugu. Manifestazioen bidez, azkenean gure kexa erakusten dugu, klima benetako arazo bat dela, eta jendea gurekin bat egin dezakeela. Hitzaldien bidez, kontzientzia falta dutenei eta baita



kontzientzian dauden pertsonekin elkartuko gara. Hitzaldi horietan, klimak sortzen dituen arazoak, guk pentsatzen duguna, eta zer egin behar den mundu hobea bat egoteko azalduko diegu, ea ongi ohartarazten diren gauza guztietaz.



Ampoule



Baliabideak eskuratzeko, adibidez, informatikariak kontratatu beharko genituzke gure aplikazioa sortzeko, konfiguratzeko eta beharrezkoa denean hau berritzeko edo aldaketaren bat egiteko. Gure aplikazioa sortzeko, baliabide garrantzitsuenetako bat beharrezkoa izango dugun dirua da. Lortu beharko dugun beste baliabideetako bat hitzaldiak emateko kontratatu beharko ditugun pertsonak izango dira, izan ere, gai honi buruz asko dakiten pertsonak izan beharko dira hitzaldi hauek ematen dituztenak.

Gure arazoarekiko lehiakideak diren hainbat enpresa aurki ditzakegu gaur egun. Izan ere, gaur egungo arazo larri bat da, eta asko dira hainbat moduetara honi aurre egin nahi diotenak. Zaborrik sortzen ez duten produktuak sortzen dituzten enpresak, kotxe elektrikoak etab. izan daitezke, gure enpresarekin bat egin eta bion onurak sor ditzaketenak. Nahiz eta guk aplikazio bat sortu, honekin zerikusirik ez dutenak ere ezinbesteko laguntzaileak izan daitezke.

Adibideetan oinarrituz, gure aplikazioaren erabiltzaileak birziklatzeko aukera izango dute, bertan sal ditzakegun produktuak erosten. Hau da, zaborrik sortzen ez duten produktuak sortzen dituzten enpresekin bat eginez, adibidez, produktu horiek saltzean bai guk eta bai haiek onurak eskura ditzakegu. Bestalde, aplikazioan oinarrituz, nahiz eta gure helburuarekin zerikusirik ez izan, beste aplikazio-enpresa batekin elkar gaitzake. Bera aditua denez, haien erosleak kolaboratutako aplikazioetan ere interesa piztuko dute.